

Haurren % 40k telebista aurrean bazkaltzen dute

*Telebistaren erabilera egokia sustatu
nahi dute familia elkarteek*

Gorane Agirre / Bilbo

Haurren % 40k baino gehiagok telebista aurrean egiten dituzte eguneroko otorduak, % 31,5ek telebista aparailu bat daukate logelan eta % 30ek telebista ikusten dute gaueko 22:00etatik 24:00etara bitartean. Datu horien aurrean, telebistaren erabilera egokia sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu Accion Familiar elkarteak Bilbon.

ACCION FAMILIAR Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) komunikazioari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Familiek telebistaren erabilera egokia egitea da helburua, eta aisialdirako beste alternatiba batzuk bila ditzatela sustatzea.

Elkarteak *Familiaren barneko komunikazioa eta sormenaren aldeko lehenengo astea* egingo du hilaren 10etik 15era bitartean. Ekimen honen helburua gizartea «familiaren funtsezko papez eta bere komunikazio beharraz» sentsibilizatzea dela azaldu zuen Luis Hernando elkarteko lehendakariak atzo.

Familiako kideen arteko komunikazioa, hein handi batean, telebistaz egiten den erabilera okerrak zailtzen duela nabarmendu zuen Her-

nandok. Horren adibide, honako datuak eman zituen: haurren % 40k baino gehiagok telebista aurrean egiten dituzte eguneko otorduak; % 31,5ek telebista bat dute bere gelan, eta 4 eta 10 urte bitartekoen % 30ek telebista ikusten du gauero 22:00etatik 24:00etara.

«Telebistak, ondo erabiliz, sormena aberats dezake, baina oker erabilia, ondorio txarrak ekartzen ditu adin txiki-koentzat», ohartarazi zuen Luis Hernandok.

Hori dela eta, elkarteak hainbat ekimen egingo ditu datorren astean: telebista egoki erabiltzeko gomendioak jasotzen dituzten 130.000 esku orri banatuko dituzte; eztabaida eta tertuliak egingo dituzte irrati eta telebistetan, edo mahai inguru bat adi-tuen artean.



EGUNKARIA

Haurrek ordu gehiegi egiten dituzte telebistari begira, kanpainaren sustatzaileen ustez.

gomendioak

Haurrei telebistaz baliatzen irakatsi

■ Haurrek telebistari «familiarterko eta arrazoizko» erabilera ematearen garrantzia nabarmendu zuten Accion Familiar erakundeko kideek atzo. Erabilera egoki hori egiteko hainbat gomendio eman zituzten:

Lagunartean • Haurrak telebista aurrean bakarrik ez uztea. Telebista lagunartean ikustea.

Denbora • Umeekin erabaki behar da pantaileen aurrean egunero igaro dezaketen denbora.

Tokia • Ez jarri telebista sukaldeko mahaian.

Zigorra • Telebista ez ikusteak ez du inoiz zigorra izan behar.

Zapping • Zapping-a ez da gehiegi erabili behar.

Musika hobe • Lanean ari zarenean ez piztu telebista, egizu lan musikarekin.

Komunikazioa • Susta ezazu haurren komunikazioa. Komenta itzazu programak familiarekin.

Sen kritikoa • Susta ezazu haurren sen kritikoa.

Kultura • Piztu ezazu kulturaren aldeko interesa.

Hizkuntz plangintzarik eza salatu dute 'demoek'

■ Angelun bide seinaleak elebitan jarri dituzte

Hur Gorostiaga / Angelu

DEMOKRAZIA Euskal Herriarentzat ekimeneko *demoek* Angeluko Maignon auzoko bidegurutzeko seinaleak elebitan jarri zituzten atzo, «euskararendako hizkuntz politikarik eza eta Kontratu-Planean euskararendako eman den diru eskasia» salatzeko.

Frantsesez idatziriko bide seinaleetan herri eta norabideen izenak euskaraz idatziriko pegatinak jarri, ekin-tza ikusgarria egin zuten *Demokrazia Euskal Herriarentzat* ekimeneko kideek, Angeluko Maignon auzoko bidegurutze garrantzitsuan (Lapurdi).

Demo-ek salatu zuten, z

Garapen Kontseiluak errepi-deetako bide seinaleak euskaratzeko eskaera egin zuen, baina oraino frantses hutseko bide seinale franko atzeman daiteke. «Oraino urrun gara euskal herritarrek Garapen Kontseiluaren bitartez euskararendako eskatu zuten hizkuntz politika eraginkorretik. Non da euskara esparru publikora zabaltzeko plana?», galdegin zuten bost kideek. Gisa berean, Kontratu Plana izan zuten mintzagai, berriktan Estatuak eta Akitaniako kontseiluak hitzartua. «Heldu diren zazpi urteetan euskarari eman nahi zaion diruarekin, halako bidegurutze bateko bi itzulgune soilik egin litezke» ohartarazi zuten.



BOB EDME

Demokrazia Euskal Herriarentzat ekimeneko kideak, atzo, bide seinaleetan euskarazko pegatinak ezartzen.